# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia Iruñean, 1997ko urriaren 8a 65 ZK.

**A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru Lege Proiektuak:**

—Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoarekiko emendakina (3. or.).

B SAILA:

**Foru Lege Proposamenak:**

—Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Legea. Akats zuzenketa (4. or.).

D SAILA:

**Hitzarmenak:**

—Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetza hitzarmena, soldadutzaren ordezko zerbitzuari buruzkoa. Osoko Bilkurak baimena emanda (5. or.).

E SAILA:

**Jabeldurak eta Mozioak:**

—Ebazpena, nazioko Gobernua premiatuz pentsioak KPIaren gehikuntzaren adinako kopuruan birbalio ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Mozioa, Foru Diputazioari 1997ko ekaitzek sortutako kalteak arintzeko aparteko kreditu bat arautuko duen Foru Lege proiektu bat igor dezan eskatzeko. Osoko Bilkurak baztertua (6. or.).

—Mozioa, Foru Diputazioari modulazio-frekuentziako zortzi emisora berriren esleipenean euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion eskatzen duena. Osoko Bilkurak baztertua (7. or.).

—Mozioa, Foru Diputazioak irrati emisorak esleitzerakoan euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion. Osoko Bilkurak baztertua (7. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Doneztebeko Informazio eta Laguntza Zentroaren arduradun gisa pertsona erdalduna jarri izanari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Nafarroako Gobernuak Donejakue Bidea dela eta aurreikusi eta burutuko dituen jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
—Erriberriko Gazteluaren ustiaketa turistiko eta kulturalari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
—Mendillorriko I. faseko botika III. fasera lekualdatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Bertizko Jauregitik egurra ateratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Matrikulazio Juntak 1997/1998 ikasturtean egin dituen bilerei eta beste arazo batzuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—Ministroen Kontseiluak onartu duen lege elektrikoaren aurreproiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—1996-1997 ikasturtean ikasleak haur hezkuntzan (3-6 urte) hizkuntza-aukeraren arabera eskolatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
—Hizkuntza Eskubideei buruzko Kongresuaren ondorioen norainokoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
—Euskararen Kontseiluari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
—Eskualde euskaldun nahiz mistoan batxilergo artistikoa egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
—90021-5 “Kirol instalazioen inbertsioetarako toki entitateendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontubetetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
—Nafarroako Gobernuak goi mailako konpetizioko taldeak izateko duen interesari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

H SAILA:
**Bestelako Testu Arau Emaileak:**
—95/1997 Foru Dekretua, apirilaren 7koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak berretsia (22. or.).
—230/1997 Foru Dekretua, irailaren 5ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak berretsia (22. or.).

I SAILA:
**Parlamentuko Jarduera:**
—1997ko irailean egindako bilerak (23. or.).
—Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1997ko irailean sartu diren agirien zerrenda (23. or.).

**A Saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektua

## *OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOAREKIKO EMENDAKINA*

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko urriaren 2an egindako Osoko Bilkuran, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoarekiko emendakina baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Hezkuntza eta Kultura Batzordera igorri da.

Iruñean, 1997ko urriaren 3a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**B Saila:**
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

# Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Legea

*AKATS ZUZENKETA*

Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Legean akats bat ikusita, (1997ko martxoaren 5eko 15 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala) ondoren argitaratzen da dagokion zuzenketa.

1. artikuluko laugarren lerroaldeak, "... Gesalatz, Lezaun eta Abartzuzako udal dermioekin ..." esaten duenean, "... Gesalatz, Lezaun, Deierri eta Abartzuzako udal dermioekin ..." esan behar du.

Iruñea, 1997ko irailaren 30a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**D Saila:**
**HITZARMENAK**

# Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetza hitzarmena, soldadutzaren ordezko zerbitzuari buruzkoa

*OSOKO BILKURAK BAIMENA EMANDA*

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko urriaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari Justizia Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetza hitzarmena, soldadutzaren ordezko zerbitzuari buruzkoa, izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen. Haren testua 1997ko irailaren 5eko 60 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko urriaren 3a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**E Saila:**
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

# Ebazpena, nazioko Gobernua premiatuz pentsioak KPIaren gehikuntzaren adinako kopuruan birbalio ditzan

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112 artikuluan ezarritakoa betez, “Pentsioak KPIaren gehikuntzaren adinako kopuruan birbalio ditzan nazioko Gobernua premiatzen duen Ebazpena”, 1997ko urriaren 2an egindako Osoko Bilkuran onetsia, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñea, 1997ko urriaren 3a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## Ebazpena, nazioko Gobernua premiatuz pentsioak KPIaren gehikuntzaren adinako kopuruan birbalio ditzan

Baldin eta 1997ko pentsioei dagokien urteroko birbalioketa egiteko Gobernuak aurreikusitako Kontsumorako Prezio-Indizea beronek pairatutako benetako birbalioketa baino haundiagoa balitz, aldea hurrengo urterako aplikatu beharreko birbalioketan xurgatua izan ez dadin premiatzen du Nafarroako Parlamentuak Nazioko Gobernua.

# Mozioa, Foru Diputazioari 1997ko ekaitzek sortutako kalteak arintzeko aparteko kreditu bat arautuko duen Foru Lege proiektu bat igor dezan eskatzeko

*OSOKO BILKURAK BAZTERTUA*

Biltzarrak, 1997ko urriaren 2an egindako Osoko Bilkuran, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak Foru Diputazioari 1997ko ekaitzek sortutako kalteak arintzeko aparteko kreditu bat arautuko duen Foru Lege proiektu bat igor dezan eskatzeko aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1997ko irailaren 22ko 62 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko urriaren 3a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## Mozioa, Foru Diputazioari modulazio-frekuentziako zortzi emisora berriren esleipenean euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion eskatzen duena

*OSOKO BILKURAK BAZTERTUA*

Biltzarrak, 1997ko urriaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari modulazio-frekuentziako zortzi emisora berriren esleipenean euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion eskatzen duen mozioa, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua, baztertu zuen. Mozio hori 1997ko irailaren 29ko 63 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko urriaren 3a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## Mozioa, Foru Diputazioak irrati emisorak esleitzerakoan euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion

*OSOKO BILKURAK BAZTERTUA*

Biltzarrak, 1997ko urriaren 2an egindako Osoko Bilkuran, «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek Foru Diputazioak irrati emisorak esleitzerakoan euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1997ko irailaren 29ko 63 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñea, 1997ko urriaren 3a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**F Saila:**
**GALDERAK**

# Doneztebeko Informazio eta Laguntza Zentroaren arduradun gisa pertsona erdalduna jarri izanari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Xotero Etxandi Juanikotena Foru Parlamentari jaunak Doneztebeko Informazio eta Laguntza Zentroaren arduradun gisa pertsona erdalduna jarri izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 19a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak, Xotero Etxandi Juanikotena Foru Parlamentari jaunak Doneztebeko Informazio eta Laguntza Zentroaren arduradun gisa pertsona erdalduna jarri izanari buruz idatziz erantzun diezaioetan egindako galderaren inguruan, ondokoa adierazten du:

1.- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren gaineko eskumenak Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioarenak dira; hori dela eta, behar den informazioa eskatu diogu kasu honi buruz INSSeko (Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala) Nafarroako Zuzendaritza Probintzialari.

Hauxe da aipatu erakundeko arduradunen erantzuna:

INSSeko Zuzendaritza Probintzialak argi du Gizarte Segurantzaren Informazio eta Laguntza Zentroa jarri behar den tokia euskalduna dela, eta hori aintzat harturik diseinatu zuen burutzapen proiektua, barne eta kanpo errotulazio elebiduna jarriz.

Gaur, zentro horrek ez du oraindik egitura organiko bat. Horregatik, zentroa abian jartzeko modu eraginkorrean, Zuzendaritza Probintzialeko zenbait funtzionario jarri dira bertan lanean, egunero zerbitzu eginkizunetan hara joanen direnak.

Funtzionario interesatuen artean hiru aukeratu dira. Hiruetatik bi euskararen ezagutza nahiko altua daukate, eta hirugarrenak oinarrizko ezagutzak ditu, informazioaren arloan erabiltzen diren prozedurak ederki ezagutzeaz gainera.

Behin Doneztebeko GSILZko Lanpostuen Zerrenda (LZ) sortzen denean, entitate honen asmoa da bi lanposturi KAH (Komunitate Autonomoaren Hizkuntza) klabea atxikitzea, euskarazko ezagutza nahikoa ziurtatuz.

2. Diputazioak, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, berariazko eskaera bat egin du euskarak eskualde euskaldunean indarra duen arauteriaren araberako tratamendua izan dezan.

3. Botere publiko guztien eginbeharra da legeek ezarritakoa bete eta betearaztea.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 19an.

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús Javier Marcotegi Ros.

# Nafarroako Gobernuak Donejakue Bidea dela eta aurreikusi eta burutuko dituen jarduketei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak Donejakue Bidea dela eta aurreikusi eta burutuko dituen jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 27a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

José Javier Sánchez Turrilas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak Donejakue Bidea dela- eta aurreikusi eta burutuko dituen jarduketei buruz idatziz erantzun diezaioten egindako galderaren inguruan, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

Galderen zabaltasunak eta zailtasunak sekulako txostena eskatuko luke, eta argi da horrek maila honetako parlamentari-ekimen baten mugak gaindituko lituzkeela. Gai hau dela-eta eskatzen zaizkigun aspektuak osatzeko aukera alde batera utzi gabe, une honetan, ondoko informazioa eman dezakegu:

1. 1987. urtetik Donejakue Bidean egin diren inbertsioei buruzko datuak, jendeguneka sailkatuta, ekimena eta zenbatekoak zehaztuz. Ikus I. eranskina.

2. 1998-1999 aldirako Donejakue Bideko eraikinak zaharberritzeko lanetarako inbertsio sail bat aurreikusi zen: guztira hirurehun eta hamasei milioi pezeta.

3. Ondotik erantsi da Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko Turismo Zerbitzuak egindako txostena, Donekajue Bidean egindako jarduerak eta 1999. Donejakueren Urterako egingo direnak biltzen dituena. (Ikus II. eranskina).

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 23an.

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús Javier Marcotegi Ros

(Oharra: Aipatu eranskinak Foru Parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

# Erriberriko Gazteluaren ustiaketa turistiko eta kulturalari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Erriberriko Gazteluaren ustiaketa turistiko eta kulturalari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 27a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Erriberriko gazteluaren ustiaketa turistiko eta kulturalari buruz idatziz erantzun diezaioetan egindako galderaren inguruan, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Erriberriko Gazteluaren ustiaketa zerbitzuaren kontzesioa arautzen zuten oinarri teknikoetan, Kultura Zuzendari Nagusiaren urriaren 5eko 355/1995 ebazpenaren bidez onartutakoetan, bil-

tzen da dinamizazio turistiko-kulturalerako eta instalazioak sustatzeko nahi diren zerbitzu guztiak egin ahal izanen direla aukeran, beti ere izaera historiko-artistikoa duen eraikinaren erabilpenarekin bateragarriak badira.

Zerbitzuaren esleipen-hartzailea den Atenea enpresak, Erriberriko Jauregiaren ustiapen turistiko-kulturalerako proiektuan ondokoa adierazi zuen: jauregiko beheko solairuko bulegoan, gehien bat jauregiarekin berarekin zerikusia izanen duten produktu batzuk saltzea proposatzen dugu.

Nafarroako Gobernuak eta Atenea enpresak 1996ko urtarrilaren 19an izenpetu zuten kontratuan, argi eta garbi zehaztu zen ustiapenaren izaera turistiko-kulturala (Aurrekinen lehen klausula eta lehen estipulazioa), hain zuzen ere uste zutelako produktuak saltzea izaera ez bakarrik kulturala baizik eta baita ere turistikoa duen ustiapen batean berezko egitate bat zela.

Kudeaketa arautzen zuen kontratuan haietan sartu beharko ziren produktuen aipamenik batere ez zen egin.

Aipatzekoa da Ondare Historikoko eraikinen ustiapen guztietan gauza arrunta dela, toki guztietan, salmentarako sail bat egotea, zerbitzua orokorrean mantentzeko ekonomikoki lagunduko duena.

2.- Otsailaren 21ean, Ondare Historikoaren Zerbitzuak baimena eman zuen erdi aroko denda bat jartzeko monumentuen multzoko lorategi zaharrerako sarbidearen eskuineko bazterrean, adieraziz denda hori kendu beharko zela harrera-toki eta denda berria egokitzeko lanak egin ondoren.

3.- Aurretik azaldu dudanaren ondorioz, ezetz esan daiteke.

4.- Ez dirudi hala denik, izan ere publikoari bertako eta eragin-esparruko markataritza arloko produktuak eskaintzen zaizkiolako.

Beste aldetik, monumentuaren imajinaziozko kudeaketa batek eskualdeko garapen ekonomiko eta sozial garrantzitsua eman dezake, enplegua sortzeaz gainera.

1996. urtean 1995.ean baino % 13 bisitari gehiago joan dira monumentua ikustera. Horretatik atera daitekeen ondorioa da ageriko onura bat ekarri diola herriko jarduera ekonomiko eta sozialari.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 23an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegi Ros

---

# Mendillorriko I. faseko botika III. fasera lekualdatzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Mendillorriko I. faseko botika III. fasera lekualdatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 23ko 47. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 27a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Foru Komunitatean botikak irekitzeko baimenak emateko irizpideei eta beste zenbait aferari buruz Ion Iñaki Erro Armendariz, Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Osasun Kontseilariak:

1.- Zer lortu nahi zuen Nafarroako Gobernuak Mendillorriko I. faseko botika lekualdatzeko data ofizialki argitaratuz?

Administrazio-espedientea aztertu ondoren, ez da agertzen horrelako erabaki bat hartzeko arrazoia zein izan zen; hau dela-eta, ezinezkoa da galdera horri eskatzen duen erantzuna ematea, kontutan edukiz lekualdaketaren argitarapena agintzeko unean Nafarroako Gobernuaren osaera ezberdina zela eta Osasun Departamentu hau zuzentzen zuen taldea ez zela galdera erantzutera behartua dagoena.

Egiazta daitekeena zera da: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko Osasun Departamentuaren historian neurri hori hartzen den lehenengo aldia dela, eta, halaber, horrelako urratsik ez dela aurreikusten ez Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean, ez botiken irekitzea eraentzen duen araudi berezian ere.

2.- Zein da legez ezarritako irizpidea eta Foru Administrazioak jarraitzen duena Foru Komunitatean botikak irekitzeko baimena emateko, 2.000 biztanletik gora dituzten tokietako eskakizunak bereziki aipatuz?

Aplikagarri den araudia apirilaren 14ko 909/1978 Errege Dekretua da, botika-bulegoen ezarpena, transmisioa eta integrazioa arautzen dituena. Bere 4.3 artikuluan botika-bulegoak irekitzeko administrazio-espedienteen izapidetzerako lehentasun-irizpideak, hala nola haiek esleitzeko irizpideak ezartzen dira, bi kasu ezberdin bereiztuz:

a) Orokorki, esleipena honela egiten da: apirilaren 14ko 909/1978 Errege Dekretuko 4.3 artikuluko bigarrenetik zazpigarren zenbakira bitartekoek ezarritako lehentasun-ordenaren arabera. Horien artean, dekretu hori garatzen duen 1979ko azaroaren 20ko Aginduak ezartzen dituen merezimendu edo gorabeheren balorazioa (laugarren puntua) aurkitzen da.

b) Salbuespen gisa, eta bi mila biztanle baino gehiagoko herrien kasurako soilik, ezarritako esleipen-irizpidea denbora-lehentasuna da; hau da, botika-bulegoa irekitze-eskaera lehenik aurkeztu zuen eskatzaileari esleitu behar zaio. Irizpide hau sarritan defendatu du Auzitegi Gorenaren doktrinak, baita herri berean eta egun berean egindako botika irekitzeko hainbat eskaera pilatzen diren kasurako ere, 1995eko urtarrilaren 26ko epaian (Ar. 244 eta Ar. 460) eta 1995eko urtarrilaren 12ko epaian (Ar. 227). Epai hauek honela diote: kasu horietan beharrezkoa da eskaera Botikarien Elkargo Ofizialean lehenago erregistratzen duen eskatzaileari ematea lehentasuna.

Hauxe da 1985ean botika-antolamendurako dituen eskumenak hartu zituenetik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aplikatu duen irizpidea, Nafarroako Botikarien Elkargo Ofizialaren proposamenez ere, eta, zehazki, honako ebazpen hauetan isladatua geratu da: 1993ko irailaren 3koa (Cintruénigo), 1993ko azaroaren 2koa (Zizur Urbanizazioa), martxoaren 15eko 232/1996 Ebazpena (Etxabakoitz auzoa) eta martxoaren 17ko 200/1997 Ebazpena (Iruñeko Santa Engrazia Auzoa), guztiak Osasun Zuzendari Nagusiak emanak.

3.- Azken 3 urteetan Foru Administrazioak ebatzi dituen edo ebatzi gabe dauden Nafarroako botiken irekitze, ixte edo lekualdatzeari buruzko administrazio-espedienteen zerrenda, ebazpena, jarraitutako irizpidea eta bakoitzaren ezaugarri nagusiak azalduz.

Nafarroan botikak ireki, itxi edo lekualdatzeari buruz 1994ko urtarrilaren 1etik gaur egun arte Osasun Departamentuak ebatzitako edo ebatzi gabe dauden administrazio-espedienteen zerrenda erantsi da.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 20a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

# Bertizko Jauregitik egurra ateratzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Bertizko Jauregitik egurra ateratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 2a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Miguel Angel Larráyoz Lezáun, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak Bertizko Jauregitik zuhaitz hil eta erorien egurra atearatzeari buruz idatziz erantzun diezaioten egindako galderaren inguruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1- Ingurugiro Departamentuak Bertizko Jaurerriko zuhaitz eroriak ateratzea neurri egokia izan dela uste al du?

2. Zer lortu nahi du Ingurugiro Departamentuak neurri hori hartzean?

1996ko otsaileko haizete handiek eta urte hartako bukaera aldean eta 1997ko hasieran izandako beste haize bolada batzuek zuhaitz asko bota zituzten Nafarroako mendietan. Era berean, Bertizko Natur Parkeko zenbait alderditan, zuhaitz asko erori ziren arrazoi bera dela-eta, bai banaka, bai multzoka.

Oihangintzako teknika zuzenak aplikatuta, mendia behar bezala zaindu nahi bada, zuhaitz erorien pila handienak erretiratu behar dira. Hori eginez gero:

a) Agente patogenoen garapen deskontrolatua saihesten da.

b) Bidea ematen da beneoneratutako zatiaren garapen zuzenerako.

c) Egurren probetxamendua egiten da.

Azaroaren 27ko 562/1995 Foru Dekretuak onetsitako Erabilpen eta Kudeaketako II. Plan Zuzentzailearen arauteriak aipatu interbentzioa aurreikusten eta ahalbideratzen du Bertizko Natur Parkean.

Parkeko Agintari Batzarrak, aurtengo urtarrilaren 28an egindako bilkuran, jakin zuen eta onartu zuen aurreikusitako jarduera hori burutu behar zela.

Beste aldetik, haizeak botatako zuhaitz horiek erretiratzea bat dator bai Bertiz Mendiaren Oihan Antolamenduaren, bai Natur Parkearen izendapena eta haren helburu eta betebeharrak aintzat hartzen duen Bertizko Antolamendu Integral berriaren jarduteko arrazoiekin.

Haizeak botatako zuhaitzen multzo guztia hartuta, heren batek ondoko ezaugarriak dituelakoan gaude:

a) Zuhaitz isolatuak dira, baina finkaren lurrazal osan zehar era uniformean barreiatuta daude. Lehendik eroritako beste askorekin batera, usteltze-gradu ezberdinak dituzte, eta beraz okilen zein beste edozein animalia-multzoren beharrak ederki asetzeko balio dute.

b) Zuhaitz horiek ateratzea garestia izango litzateke.

Ondokoak dira zuhaitzen beste bi herenen ezaugarriak:

a) Alderdi jakin batzuetan pilatzen dira.

b) Lur horiek lehendik dauden bide zahar edo ibilbide batzuen ondoan daude.

c) Materiala ateratzea erraza da.

d) Bisitarientzat, faunarentzat eta zutik dagoen landarediarentzat oso kalte arina suposatzen dute.

e) Paisaia gutxi aldatzen dute.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Gobernuak baimena eman du Bertizko Jauregiko Natur Parkean 1996ko otsailetik gaur arte haizeak bota dituen zuhaitzetatik bi heren ateratzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 24an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

# Matrikulazio Juntak 1997/1998 ikasturtean egin dituen bilerei eta beste arazo batzuei buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Matrikulazio Juntak 1997/1998 ikasturtean egin dituen bilerei eta beste arazo batzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 2ko 40. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 2a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak gehiegizko matrikulazioei buruz egindako galderaren inguruan, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1.- Eskolatze batzordea, 1996ko abenduaren 18an sortu zenetik, otsailaren 8an, martxoaren 3an, maiatzaren 12an eta ekainaren bian bildu da. Irailean berriz bilduko dira matrikulazio eta eskolatze kasu berriei buruz erabakitzeko. Batzorde iraunkor bat ere badago, gertatzen diren arazo puntualei konponbidea ematen diena.

2.- Epe ofiziala bukatzean Nafarroan 3 eta 4 urtekoen aurrematrikulan zenbat ikasle zeuden zentro eta hizkuntza eredu bakoitzean: ikus 1. eranskina.

3.- Zentroen dautak, aurrematrikulatuen kopurua gehiegizkoak zehaztuz:

– Santa Luisa de Marillac ikastetxea: 6

– Notre Dame ikastetxea: 3

– Regina Pacis ikastetxea: 5

– Misioneras del Sdo. C. ikastetxea: 7

– Santa Teresa de Jesús ikastetxea: 9

– Smo. Sacramento ikastetxea: 3

– Axular: 13

– Ermitagaña: 13

– Hegoalde: 2

– Paz de Ziganda: 16

– Ansoain: 4 H.E.ko 3.a egiteko
4 L.H.ko 1.a egiteko

– Biurdana: 21 D.B.H.ko 1.a egiteko.

4.- Ikus 2. eranskina.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 23an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegi Ros

(Oharra: Aipatu eranskinak Foru Parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

# Ministroen Kontseiluak onartu duen lege elektrikoaren aurreproiektuari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Ministroen Kontseiluak onartu duen lege elektrikoaren aurreproiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 2a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Lege elektriko berriaren aurreproiektuari buruz Jesús Javier Arteaga Olleta, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Ramón Bulto Llevat, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari Jaunak:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du Ministroen Kontseiluak onetsitako lege-aurreproiektuaren berri?

Autoprodukzio, tarifa eta banaketa/merkaturatze arloetan protokolo Elektrikoa arau bidez garatzeko lan taldeetan Nafarroako Gobernua ordezkatua egon da eta modu aktiboan parte hartu du horietan.

Halaber, Sektore Elektrikoari buruzko Legeproiektuaren aurretik izan diren zirriborroen zein Ministroen Kontseiluak behin betiko onetsirikoaren berri izan du.

2.- Nafarroako Gobernuak elektrizitateari buruzko lege-aurreproiektua aztertu al du?

Nafarroako Gobernuak sakonki aztertu ditu bai zirriborroak bai Sektore Elektrikoari buruzko Legeproiektua.

3.- Nafarroako Gobernuak tarifan errekargu gehigarriak ezarri behar direla uste al du?

Lege-proiektuak tarifaren bidez ordainduriko elektrizitate-jarduerei zerga autonomiko edo tokikoak ezartzeko aukera aurreikusteari eta ahalmen hori autonomia erkidego eta toki entitateek edukitzeari oso ongi deritze Nafarroako Gobernuak.

Bestelako kontua da, ordea, horiek ezartzean kontuan hartu behar diren egokitasun- eta zuhurtasun-irizpideak zeintzuk diren zehaztea eta gainerako energiekiko konparaziozko egoera.

4.- Nafarroako Gobernuak bere egingo du bere osotasunean Legeak ezarritakoa edo, dituen eskumenen arabera, aldaketak proposatuko ditu Nafarroako Parlamentuak onets ditzan?

Nafarroako Gobernuak aldaketak proposatu ditu Legearen eraketa-fase ezberdinetan, Nafarroako Energia Planaren oinarri diren energia berriztagarriei arreta berezia eskainiz; horien tratamenduak eragin haundia izan dezake helburuak betetzeari dagokionean. Zehazki, idazki honi eranskin gisa gehituriko proposamenak egin ditu.

Proposamen hauek Energiaren eta Baliabide Mineralen Estatu Idazkariari eta Diputatuen Kongresuko Industri, Energia eta Turismo Batzordeko kideei bidali zaizkie. Elektrizitate Sistema Nazionaleko Batzordeko Kontseilu Aholkuemailean ere azalduak izan dira proposamen horiek, eta, bilkurako aktan jaso ondoren, Industri eta Energia Ministeriora bidali zituen hark.

Dena den, Lege-proiektuak Energia Berriztagarriei ematen dien tratamendu orokorra egoki jotzen da.

Iruñea, 1997ko ekainaren 25a.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat.

Eranskina
Energia elektrikoaren hornidurarako
jarduerak liberalizatzeko
lege-aurreproiekturako proposamenak

Araubide bereziari heltzen dioten ekoizleei ordaindu beharreko azken prezioa ezin izango da izan koalifikatu izaera ez duten azken kontsumitzaileentzat finkaturiko tarifen batezbestekoaren edo, tarifak desagertu egingo balira, urtean orduko bost Gigawatt baino eskaera txikiagoa duten kontsumitzaileentzat suertaturiko batezbesteko prezioaren ehuneko hirurogeita hamabosta baino txikiagoa edo ehuneko laurogeita bosta baino haundiagoa, Lege honetako 17. artikuluko 3. idazatiak aurreikusten duenez.

Arrazoiak

Energia berriztagarriko instalazioei egonkortasun-banda bat eman nahi zaie, sektore horretan beharrezkoak diren inbertsioak sustatzeko.

Bandaren barruan primak finkatuz jardun ahal izango du Gobernuak, energia berriztagarri ezberdinak (eguzkiarena, eolikoa, biomasa, hidraulikoa eta abar) banaka sustatzeko, heldutasun-mailaren eta horietako bakoitzarentzat ezarritako helburuen arabera.

Kontsumitzaileentzako azken prezioa erreferentziatzat hartzearen ondorioz, berriztagarrien ekoizleek beren produkzioan jasan behar dituzte sektoreak bere osotasunean egiten dituen efizientzia-ahaleginak, azken kontsumitzailearentzako tarifak jaisten baldin badira, haientzako ordainketa proportzio berean jaitsiko baita.

Banda hori lege bidez ezartzeak bermatu egiten du produkzio berriztagarriaren eta, beraz, berezko eta garbiaren, sustapena Gobernu bakoitzak aplikatzen dituen politika zehatzen gainetik altxatzen den Estatu-afera bat izatea. Bestalde, azken kontsumitzaileari energia gehiegi garestitzea eragozten duen gehieneko muga bat ere ezartzen da.

Europako legedian (Alemanian, zehazki), badaude aurrekinak: legez finkatzen da berriztagarrien ordainketa, kontsumitzailearentzako tarifei lotuz (zehazki, %70a ekoizpen minihidraulikorako eta %90a eolikorako, eguzkiarenerako eta abar).

Legezko zehazpen honen ezean, berriztagarrien ordainketa Gobernuaren erabakiaren eta elektrizitate konpainien presioen menpean geratuko litzateke urteoro; hori dela-eta, eguraldiari, teknologiari eta abarri dagozkion arrisku anitzen eraginpean dauden eta 20 urte inguruko amortizazio-epea duten proiektuetarako finantzaketa lortzea ezinezkoa izango litzateke.

Azaldutakoagatik, emendakin hau ez sartzeak Espainian berriztagarrien sektorea geldiaraztea ekar lezakeela esan daiteke eta, beraz, horrekin batera ingurugiroaren eta enplegu-sorkuntzaren arloan beharrezkoak diren helburuak erdiesteari uko egitea.

Araubide berezian 10 eta 50 MW bitarteko potentzia duten zentral hidroelektrikoak sartzea.

Arrazoiak:

– Aprobetxamendu hauek araubide berezian ez sartzeak praktikan zera ekarriko du: mota honetako inongo instalaziorik ez egitea datozen 8 edo 10 urteetan, horiek ekoiztutako energiaren ordainketa kW/ordu bakoitzeko 4 pezeta ingurukoa izango baita.

– Hori gertatzen baldin bada, Espainiak uko egiten dio datozen urteetan zehar energia berriztagarri, ez kutsatzaile eta berezkoaren bere potentzial onena garatzen segitzeari.

IDAEk emandako datuen arabera, zentral hidroelektriko ertain eta haundietan garatzeke dagoen potentzial teorikoa 27.300 GW/urtekoa da oraindik, minizentraletan potentzialki garatu ahal izango liratekeen urteko 6.700 GWekin konparatuz.

Potentzial horretatik, zentral oso haundiak bakarrik burutu ahal izango lirateke, eskala-ekonomiak hazkorrak direlako aprobetxamendu hidroelektrikoetan; baina, nolanahi ere, tamaina ertainekoetan ez litzateke nahikoa izango.

– Instalazio hauek osoki egiteko gaitasuna daukan industria nazionala kaltetuko litzateke; gutxienez bost hornitzaile daude horiek maila altuenean egiteko gauza direnak.

– Emakida bidezko produkzioak 10 urtetan zehar konpetentziara iragateko kostu onartu batzuk dauzka, bidegabekoagoa egiten dutenak oraindik aprobetxamendu hauen balizko posizioa.

– Espainiak $CO_2$aren emisioak murrizteko programa bat bete behar du; horretarako, instalazio hauek sustatuak izan daitezela behar du.

– Urtegi berriak eraikitzea eta, azken batean, Nazioko politika hidraulikoa, hein haundi batean baliabideen zati bat aprobetxamendu hidroelektrikoetatik lortzeko beharrean oinarritzen da.

– Beste energien ingurugiro-kostuak neurtzen ez diren bitartean, 10etik 50 MWera bitarteko aprobetxamendu hidroelektrikoentzat argi eta garbi bidegabekoa den egoera bat mantentzen jarraituko da; egoera hau orekatzeko, horiek Araubide Berezian sartu behar dira.

Instalazio hidraulikoetarako, kogenerazioketarako eta energia berriztagarriko baliabide edo iturriek hornituriko beste batzuetarako energia elektrikoa ekoizteari buruzko abenduaren 9ko 366/1994 Errege Dekretuak aurreikusitako ustiapen-araubideari heltzen dioten ekoizleek gehienez 10 urtez mantenduko dute araubide hori, seigarren xedapen iragankorrak ezartzen duenez.

Arrazoiak:

Koherentziagatik, Laugarren Xedapen Iragankorrak sektore elektrikoaren gainontzekoari ematen dion epe berbera eman behar da, ez baita bereizketa bat egiteko arrazoi objektiborik antzematen.

## 1996-1997 ikasturtean ikasleak haur hezkuntzan (3-6 urte) hizkuntza-aukeraren arabera eskolatzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak 1996-1997 ikasturtean ikasleak haur hezkuntzan (3-6 urte) hizkuntza-aukeraren arabera eskolatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 2a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Haur Hezkuntzan eskolaratzearen zenbait aferari buruz egindako galderaren inguruan, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1.

| | Hizkuntz Ereduak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 96-97 | A | B | D | G | Guztira |
| Haur Hezk. | 3.064 | 51 | 3.377 | 7.502 | 13.994 |

2. Ikus 1. eranskina.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 20an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegi Ros

(Oharra: Aipatu eranskinak Foru Parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

---

## Hizkuntza Eskubideei buruzko Kongresuaren ondorioen norainokoari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Hizkuntza Eskubideei buruzko Kongresuaren ondorioen norainokoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 2a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Hizkuntza-eskubideei buruzko Kongresuaren ondorioen norainokoari buruz Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentariak eginiko galderari erantzunez, honako hau agertzen du Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak:

Sinposium bateko ondorioak eta Gobernu baten jarduketak eremu ezberdinei dagozkie; beraz, ez dute konpromisorik sortarazten, ez Nafarroako Gobernuarentzat ez bere Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiarentzat, aipatu Kongresua prestatzen eta Kongresuan bertan parte hartzen jardun badu ere.

Hala ere, gure ustez Kongresu horretako ondorioetan ez dago Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarekin kontraesanean dagoen ezer; alderantziz, Nafarroako Gobernuaren jarduketen lorpenek gainditu egiten dituzte, gure ustez, Europako Hizkuntzei eta Legediei buruzko III. Nazioarteko Sinposiumak proposaturikoak.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 19a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

# Euskararen Kontseiluari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Euskararen Kontseiluari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 2a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Euskararen Kontseiluari buruz Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentariak eginiko galderari erantzunez, honako hau agertzen du Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak:

1.- Euskararen Nafarroako Kontseilua eratzeko bilkura aurtengo ekainaren 11n egin zen, eta Kontseiluaren bilkuren aldizkakotasuna eraketari buruzko Foru Dekretuaren 10. artikuluak xedatutakoari egokituko zaio.

2.- Euskararen Nafarroako Kontseilua osatzen duten pertsonak eta horien izendapenaren zergatia den kontzeptua honakoak dira:

– Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta Kontseiluko burua: Miguel Sanz Sesma jauna.

– Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria eta Kontseiluko buruordea: Jesús Javier Marcotegui Ros jauna.

– Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusia: Fernando Pérez de Viñaspre Márquez jauna.

– Hezkuntza Zuzendari Nagusia: Santiago Arellano Hernández jauna.

– Euskaltzainburua: Jean Haritschelhar Duhalde jauna.

– Nafarroako Unibertsitate Publikoari dagokion kontseilukidea: José Mª Iza Etxebeste jauna.

– Nafarroako Unibertsitateari dagokion kontseilukidea: Ana Echaide Itarte andrea.

– Euskaltzaindiari dagokion kontseilukidea: José Mª Satrústegui Zubeldia jauna.

– Eusko Ikaskuntzari dagokion kontseilukidea: Mikel Aramburu Urtasun jauna.

– Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari dagokion kontseilukidea: José Mª Ayerdi Fernández de Barrena jauna.

– Nafarroako Ikastolen Federazioari dagokion kontseilukidea: Fermín Alzugarai Igantzi jauna.

– Nafarroako Prentsa Elkarteari dagokion kontseilukidea: Mikel Donazar Jaunsaras jauna.

– Oinarriak Elkarteari dagokion kontseilukidea: José Manuel Leitza Razquin jauna.

– Kontseilukidea: Juan Apecechea Perurena jauna.

– Kontseilukidea: Aingeru Epalza Ruiz de Alda jauna.

– Kontseilukidea: Andrés Iñigo Ariztegui jauna.

– Kontseilukidea: José María Jimeno Jurío jauna.

– Kontseilukidea: Valentina Iriberri Bengoetxea andrea.

– Kontseilukidea: Patxi Salaberri Zaratiegui jauna.

– Kontseilukidea: Mª Francisca Zabaleta Zabaleta andrea.

– Kontseiluko Idazkaria: Juan Ramón Elorz Domezain jauna.

3.- Gobernu berria eratu eta Departamentuen egitura organikoa onetsi ondoren 135/1996 Foru Dekretua aldatu behar izan da.

Aldaketok 689/1996 Foru Dekretuan jasotzen dira.

Bestalde, iragan den denborak eta Kontseiluan ordezkaturiko hainbat erakunde eta entitatetan izan diren aldaketek horiei kontseilukideak berresteko edo berritzeko eskatzera behartu du.

Kargu-uzteak eta izendapen berriak 1997ko apirilaren 21ean egindako bilkuran erabaki zituen Nafarroako Gobernuak. Honako hauek dira:

a) Nafarroako Gobernuaren ordezkariak: Gobernuko Lehendakaria, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria Lehendakaritza Kontseilariaren ordez, Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusia eta Hezkuntza Zuzendari Nagusia, begi-bistako arrazoiak direla eta.

b) Erakunde eta entitateen proposamenez izendaturiko kontseilukideak: Eugenio Arraiza

Rodríguez jaunak kargua utzi du eta Mikel Aramburu Urtasun jauna izendatu dute Eusko Ikaskuntza ordezkatzeko.

c) Euskara eta euskal kulturaren arloan ospetsu diren pertsonen artetik izendaturiko kontseilukideak: Mª Jesús Perurena Santesteban andreak kargua utzi du eta Valentina Iriberri Bengoetxea izendatu dute, 135/1996 Foru Dekretuak Gobernuari ematen dion ahalmena erabiliz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluak eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko ekainaren 23a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

---

## Eskualde euskaldun nahiz mistoan batxilergo artistikoa egiteari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak Eskualde euskaldun nahiz mistoan batxilergo artistikoa egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko ekainaren 9ko 42. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 2a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak eskualde euskaldun nahiz mistoan batxilergo artistikoa egiteari buruz egindako galderaren inguruan, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Batxilergo guztiak aztertu, planifikatu eta abian jartzeko lanak 1997-98 ikasturtean zehar burutuko dira. Beraz, goizegi da burutu gabe dagoen zerbaiti buruz argibideak eskatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko ekainaren 26an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús Javier Marcotegi Ros

---

## 90021-5 “Kirol instalazioen inbertsioetarako toki entitateendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 90021-5 “Kirol instalazioen inbertsioetarako toki entitateendako dirulaguntzak” kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 4a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak 90021-5 Kirol instalazioen inbertsioetarako toki entitateendako dirulaguntzak kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galdera dela eta, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak ondoko erantzuna bidaltzen dizu, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikuluarekin eta ondokoekin bat.

1. Zer fondo erabili da hurrengo aurrekontu-kontusailean: 90021-5 lerroa, Kirol instalazioen inbertsioetarako toki entitateendako dirulaguntzak?

Kirol instalazioen inbertsioetarako toki entitateendako dirulaguntzak izeneko 90021-5 lerrotik erabili diren fondoei dagokionez, esan behar da deialdiak apirilaren 30a jarri zuela eskaerak aurkezteko mugaegun, eta administrazioak hiru hilabeteko epea duela eskaerei buruzko ebazpenak emateko. Beraz, oraingoz ez da fondorik batere erabili.

2. Zer fondo hitzartu dira aipatu kontusailean eta zer kontzeptupean?

Aurreko puntuan azaldutakoan sakonduz, ez da fondorik batere hitzartu kontusail horretan.

3. Zenbat erabili daiteke aipatu aurrekontu-kontusailean?

Kontusail horretan erabil daitekeen dirua da Nafarroako Parlamentuak 1997ko Nafarroako Aurrekontu Nagusietan ezarri zuena. Ezin izan da diru-zenbateko hori murriztu, alderantziz, Parlamentuko emendakin baten bidez handitu egin da lehenbizko proiektuan ezarritakoaren aldean.

Hori guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

---

## Nafarroako Gobernuak goi mailako konpetizioko taldeak izateko duen interesari buruzko galdera

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrak Nafarroako Gobernuak goi mailako konpetizioko taldeak izateko duen interesari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 26ko 37. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko uztailaren 4a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Begoña Errazti Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuak goi mailako konpetizioko taldeak izateko duen interesari buruz egindako galdera dela eta, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak ondoko erantzuna bidaltzen dizu, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikuluarekin eta ondokoekin bat.

1. Nafarroako Gobernuak ba al du interesik Nafarroako goi mailako konpetizioko taldeak izateko, gure Komunitatea ordezka dezaten?

Gure Komunitateak kirolaren goiko mailetan ordezkaririk ez duelako baieztapenari dagokionez, gogoratu nahi nizuke aipatzen dituzun beisboleko 3 taldeez eta atletismoko talde bakarraz gainera, kirol-taldeen (klubak), federazioen eta banakako kirolarien partehartzeari esker, ondoko emaitzak ditugula gaur egun, espezialitatez espezialitate:

Atletismoan bi talde ditugu ohorezko dibisioan, 5 domina (horietatik bi urrezko) Espainiako txapelketetan, eta nazioarteko txapelketetan parte hartu duten lau kirolari; saskibaloian, talde bat daukagu emakumeen kategoria gorenean, beste bat bigarren kategorian eta talde bat EBA ligan; eskubaloian, emakumezkoen ekipo bat ohorezko dibisioan eta beste bi 1. dibisioan, emakumezkoetan eta gizonezkoetan; boxeoan, Espainiako txapelduna; minusbalituentzako kiroletan, joku olinpikoetan dominak lortu dituzten kirolariak; futbol-salan, bigarren sailkapena emakumezkoen Selekzio Autonomikoen arteko Espainiako Txapelketan, lehen postua Futbol Federazioaren Espainiako Kopan eta bi talde futbol-salako zilarrezko dibisioan; beste ekipo bat futbol profesionaleko ligan; harri-jasotzean munduko marka; Judoko Espainiako txapelketa autonomikoan hiru domina, gizonezkoetan txapeldunordea eta emakumezkoetan hirugarren postua; kick-boxing-eko Espainiako txapelduna, bi domina borroka grekoerromatarrean eta beste bi borroka aske olinpikoan; talde bat waterpoloko A-2 kategorian; bi domina igeriketan; hiru klub irristaketako kluben arteko Espainiako txapelketan dominak lortu dituztenak, eta 6 domina txapelketa horretako banakakoetan; pilota profesionalean Espainiako txapelduna banakakoetan eta bikoteetan, eta Espainiako federazioaren selekzioen arteko torneoan eta Errege Kopan txapelduna; nazioarteko parte hartzaile bat piraguismoan; rugbyan, klub bat daukagu lehen dibisioan eta Nafarroako selekzioa goreneko kategorian; sanboko Espainiako hiru txapeldun; hiru domina Espainiako taekwondo txapelketan eta hirugarren postua mudu kopan; tenisean, ordezkari bat Winbledongo Grand-Slalomen; belan, berriz, Vauriem mailako munduko bi txapeldun.

Esan daiteke, beraz, 500.000 biztanle baino gehixeagoko gure Komunitatea ederki ordezkatuta dagoela Estatu mailan.

Eskubaloiko ordezkari gizonezkoak eta saskibaloikoak (emakumezkoen taldeaz ari zarela suposatzen dugu) ohorezko dibisioan abandonatu behar ote ditugun, gogoratu behar dugu aurten bi ekipo horiek hurrenez hurren 12 eta 8,1 milioi jaso dituztela Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institututik.

Gobernuak, esandakoaz gainera, interesa du Nafarroan goi mailako konpetizioko taldeak izateko, gure Komunitatearen ordezkari izan daitezen, eta horrela erakusten du: 102 milioi baino gehiago ematen ditu zuzeneko dirulaguntzen bidez (dirulaguntza hauek hurbileko beste komunitateetan ematen direnak baino gehiago dira).

2.- Liga erregularretan parte hartzen duten Nafarroako kirol talde esanguratsuek dituzten babestaile-falta dela eta, Gobernuak esku hartzeko asmorik al du arazo horretan?

Estatu osoan parerik ez duen Kirol Babesari buruzko Foru Dekretu bat dugu hemen. Horren bidez bidea ematen zaie enpresei % 15eko kenketa egiteko. Dekretuak ezarritakoaz baliatu diren entitate pribatuek 158 milioi pezeta baino gehiago jarri dituzte 1996. urtean.

Era berean, babestailea behar duten talde guztiei behar dutena bilatzen laguntzeko asmoa du Gobernuak. Horren adibide bat ikusi da berriki, gizonezkoen eskubaloiko ohorezko dibisiorako taldearentzat babestaile bat lortzeko orduan.

3. Zer neurri hartu ditu edo hartzeko asmoa ditu Gobernuak lehen mailako talde nafarren iraupena bermatzeko Estatu mailako kirol txapelketa ezberdinetan?

Lehen mailako talde nafarrek maila horretan irauteko hartu diren neurriei dagokienez, bere garaian Parlamentuan aurkeztutako politika garatzeko bidean, adierazi behar dugu 6 federaziotako teknifikazio-programak berregituratzen, antolatzen eta optimizatzen ari garela, bai eta kirolarientzako laguntzak egokitzen ere, diru-beken nahiz egoitza-beken bitartez. Kirolaren Ikerketa eta Medikuntza Zentroak egiten dituen jarraipen medikoak ere gero eta ugariagoak dira. Beste alde, abian jartzen ari da goi mailako kirola laguntzeko Fundazio bat, enpresa pribatuek finantzatutakoa.

Ondorioz, esan daiteke ez duela egokia ematen goi mailako kirolaren egoera neurtzea ekipo batean edo bi ekipotan geratzen denarekin soilik, izan ere azalpenean ikusi denez, kirolak osasun bikaina duelako Nafarroan, nahiz eta egoera hori,

zalantzarik gabe, hobetu daitekeen eta hobetu behar den.

Hori guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 1997ko ekainaren 30ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

**H Saila:**
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

## 95/1997 Foru Dekretua, apirilaren 7koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

*OSOKO BILKURAK BERRETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko urriaren 2an egindako Osoko Bilkuran, 95/1997 Foru Dekretua, apirilaren 7koa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, berrestea erabaki zuen. Dekretu hori 1997ko apirilaren 18ko 47 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 1997ko irailaren 5eko 60 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 3a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## 230/1997 Foru Dekretua, irailaren 5ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

*OSOKO BILKURAK BERRETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko urriaren 2an egindako Osoko Bilkuran, 230/1997 Foru Dekretua, irailaren 5ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, berrestea erabaki zuen. Dekretu hori 1997ko irailaren 19ko 113 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 1997ko irailaren 29ko 63 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 3a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

**I Saila:**
**PARLAMENTUKO JARDUERA**

# 1997ko irailean egindako bilerak

### MAHAIA ETA BOZERAMALEEN BATZARRA

1, 9, 16, 23 eta 30ean.

### LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

11n:

– Lan bilera, ANAT-LANE Elkartearen ordezkaritzak Garesko Sarria ehiza barrutiko hesien egoeraren berri eman dezan.

23an:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaleen Batzarrak hala eskaturik, Garesko Sarria ehiza barrutiko hesiaren egoeraren berri emateko.

### TRIBUTUEN ERREFORMA AZTERTZEKO BATZORDE BEREZIA

30ean:

– Batzordearen jarduketa arauak eztabaidatzea.

– Bilkuren egutegirako proposamena.

# Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1997ko irailean sartu diren agirien zerrenda

**1a:**

– A-15 eta A-68 autobideei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

– Nafarroako Ingurugiro Kontzeiluari eta berari Foru Agindu batek sorturiko egoerari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

**2a:**

– INAPeko zuzendari-kudeatzailearen idazkia. Harekin batera, VI. kapituluko kontusailen arteko aurrekontu-transferentzia egiteko baimena ematen duen erabakia.

– Errioxako Autonomia Erkidegoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin “Rioja” Jatorri Izendapenaren eta honen Kontseilu Arauemailearen gainean eduki beharreko lankidetza-hitzarmenari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua

**3a:**

– Nafarroako Auzitegi Nagusiko Kontentzioso-Administratiboaren Salaren idazkia. Hauxe eskatu du: Mª Luisa Ripa Ajona andrearen administrazio espedientea.

– Mozioa, pentsioak KPIaren gehikuntzaren adinako kopuruan birbalio ditzan nazioko Gobernua premiatuz, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua

**4a:**

– Nafarroako Auzitegi Nagusiko Kontentzioso-Administratiboaren Salaren idazkia. Hauxe eskatu du: Amaia Mitxelena Enbil andrearen administrazio-espedientea.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Gizarte Ongizatearen Zuzendari Nagusiaren ebazpena, Aurrekontu Orokorretako 10 Programako kontusailen arteko transferentzia baimentzen duena.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nekazaritza Kontseilariaren agerraldia, Burson Marsteller enpresa kontratatzeko arrazoiei buruzko informazioa eman dezan.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ospitale publikoen geletako telebista eta telefonoak jarri eta ustiatzeari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak inbertsio fondotan eta Nafarroako Zor Publikoan egindako inbertsioari buruzko galdera, Isabel Arbonies Bermejo Foru Parlamentari andreak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak “Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuna” izeneko 44 Programako aurrekontu-kontusailen betetzeari buruz eskatu duen informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak eta Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbarak garatzeko bidean diren herriekiko lankidetzari buruz izenpetu duten hitzarmenari buruzkoa.

– Ubide eta malkarren garbiketarekin zerikusia daukaten Ingurugiro Departamentuaren jarduketa batzuei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

**5a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Hezkuntza Kontseilariaren agerraldia, 1997-1998 ikasturtearen hasiera eta plangintzaren berri emateko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Oteiza Museo-Etxea” 14580-8 aurrekontu kontusailari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Gipuzkoako Beizamako Udalaren idazkia. Harekin batera, osoko bilkurak Juan Carlos Hernandoren heriotzaren inguruan hartutako erabakia.

– Nafarroako Euskal Herrian Euskarazen idazkia. Hauxe eskatu dute: euskarari buruzko plangintza bete dadila.

– Nafarroako Auzitegi Nagusiko Kontentzioso-Administratiboaren Salaren idazkia. Hauxe jakinarazi dute: informatika sistemetako erdi mailako teknikari lanpostu hutsa lehiaketaren bidez betetzeko deialdiari errekurtsoa aurkeztu diotenek deialdia etetea eskatu dutela.

**8a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Nafarroako 1996ko Kontuei buruzko Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Barne Zuzendari Nagusiaren idazkia, aurrekontu-kontusailen arteko aurrekontu-aldaketak onesten dituena.

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidea direla-eta, Burson-Marsteller enpresaren zerbitzuak kontratatzeko prozesuaren inguruko informazioa.

– Senideak-en idazkia. Hauxe eskatu dute: Nazabal Auzmendi jaunak Iruñeko espetxean jarrai dezala bere kondena betetzen bukatzen duen bitartean.

**9a:**

– Larrialdietako Telefono Zerbitzua abian jartzeari buruzko galdera, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina.

– Leipzigko Azokan parte hartzearen diru-kostuari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina.

– Nafarroako Auzitegi Nagusiko Kontentzioso-Administratiboaren Salaren idazkia. Hauxe eskatu dute: informatika sistemetako erdi mailako teknikari lanpostu hutsa lehiaketaren bidez betetzeko deialdiaren espedientea bidaltzea.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, “Gau eskolentzako dirulaguntza” izeneko 13470-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, “Unibertsitatez besteko ikastetxe publikoen funtzionamendua, jarduketak eta hornidura materialaren finantzaketa” izeneko 12710-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, “Torre Basoko polikiroldegia” izeneko, 12631-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Aiegiko dermioan igeltsu-harrobia ustiatzeari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Corellan hormigoizko elementuak egiteko lantegia jartzeko industri proiektuari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Iruñea-Munich hegaldien emaitza ekonomikoei buruzko galdera, Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak “1998-2005 Errepide Plan Zuzentzailea”ri buruz eskaturiko informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, ETB hartzeko emisorak jartzeko Zaraitzuko Batzarrari aholkua eman zion Herrilan Departamentuko teknikari baten jarduketaren gaineko txostenari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak eskaturiko informazioa, Estatu Batuetako Floridarekin elkartrukea egiteko hitzarmenaren zirriborroari eta Nafarroako enpresa nazioarteratzeko Planari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: lan-bilera egitea, Félix Armendariz, Enrique Castien eta Francisco J. Enériz jaunekin, Garesko NA-10045 ehizabarrutiaren gaineko espedienteari buruzko informazioa eman dezaten.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: 1249 sarrerazenbakia duen galdera ahozko bihurtzea.

**10a:**

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Kudeaketako teknikari izateko 10 lanposturen deialdiari buruzko galdera, Mª Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina.

– Ibai-arroen Planaren jarduerei buruzko galdera, Mª Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina.

– Sai arrearen inguruko ikerlan bat abian jartzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (8. or.).

– Atzerrian diren Nafarroako Zentroei dirulaguntzak ematea arautzen duen Foru Aginduari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egina.

– Nafarroako autobideetan BEZa jaisteari buruzko galdera, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina .

– Harresien multzoa, Gotorlekua eta San Cristóbal Fortea “Gizon-emakume guztien Ondareko Ondasun” deklaratzeari buruzko galdera, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak egina.

– Nafarroak Lisboako Expo-98an izanen duen lekuari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina

– Mozioa, Foru Diputazioari 1997ko ekaitzek sortutako kalteak arintzeko aparteko kreditu bat arautuko duen Foru Lege proiektu bat igor dezan eskatzeko, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– “Ezker Abertzalea” Parlamentari Taldearen idazkia, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunari esleitu zaizkion Batzordeak jakinarazten dituena.

– Raquel Jiménez Ayllón andrearen idazkia, Nafarroako Parlamentuarekin duen kontratuaren suntsiarazpena jakinaraztekoa.

– Ospitaleetan kogenerazio-sistemak ezartzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina.

**11:**

– “Nafarroako Demokraten Elkargunea”, “Izquierda Unida-Ezker Batua” eta “Eusko Alkartasuna-Askotariko” Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Tributuen Erreforma aztertzeko Batzorde Berezia biltzeko deia egin dadila.

**12a:**

– Nafarroako Industri Ingurugiroko Sozietate Publikoko gerentea izendatzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Kulturetxeak eta bestelako udal-kulturguneak eraiki eta ekipatzea” izeneko 90057-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera,

Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Irakasleei laguntzeko zentroak” izeneko, 13360-5 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Barañaingo auditorioarentzako dirulaguntza” izeneko 13971-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hitzartutako larrialdi-garraio programatuaren zerbitzuaren lehiaketa eta esleipetari buruzko administrazio-espedientearen gainekoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, 1996an zehar etxebizitza erosteagatik zerga-pizgarriak jaso dituzten zergadunei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Biltzarreko Mahaiak eskaturiko informazioa, Navas de Tolosa kaleko 1ean dagoen “Justizia Jauregia” eraikinaren egoerari buruzko txostenaren gainekoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Nafarroako Ospitaleko D pabilioia (kardiologia) birmoldatzeari buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Osasun Departamentuak ezarri dituen oxigenoterapia-hitzarmenei buruzko galdera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Emakumearen Instituaren aholkularitza juridikoari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ekonomi eta Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nagusiek emandako ebazpenak, joan diren ekain, uztail eta abuztukoak.

**15a:**

– Auzitegi Goreneko Bigarren Salaren idazkia. Harekin batera, Adolfo Araiz Flamarique Foru Parlamentari jaunaren ondasunak enbargatu eta atxikitzeko erabakia, 840/96 auzi berezia instruitzen ari den Magistratu jaunak hala agindu baitu.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Ikastetxe publikoetarako ikasmateriala, altzariak eta ekipoak erostea” izeneko 12640-4 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Haur Hezkuntzaren bigarren zikloko lehen, bigarren eta hirugarren kurtsoetan diruzlagundu diren unitateei buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Haur hezkuntzako lehen zikloa ezartzea” izeneko 13131-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Cuatrovientos” Institutu Tekniko Komertzialari buruzko galdera, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: 1997-1998 ikasturterako plazarik gabe geratu den ikasleak direla eta hartu behar diren neurriei buruzko galdera, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Santa Cecilia kontzertu-sozietatearekiko hitzarmena” izeneko 14110-1 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Irakaskuntzari buruzko azterlanak” izeneko 12491-6 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Unibertsitatez besteko irakasleak atzerriko hizkuntzetan birziklatu eta trebatzeko programak” izeneko 13350-8 aurrekontu-lerroaren buru-

tze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: "Ikastetxe berriak eraikitzea eta LOGSEri egokitzeko obrak" izeneko 94001-2 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: "Irakasleen prestakuntza-jarduketak" izeneko, 13340-0 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: "Guraso eta ikasleen elkarte eta federazioendako eta eskola kontseiluetan partehartzea sustatzeko dirulaguntza" izeneko 13100-9 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Helduak euskalduntzeko dirulaguntza-modulua gehitzeari buruzko galdera, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Burlatan dagoen Emakumeak hartzeko Eskualde Etxearen egungo egoerari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: 1997ko ekainaren 30a arte emandako abalei eta abalaturiko kopuruei buruzko informazioa.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Nafarroako Gobernuko kontseilari-bozeramalea agertzea, Gobernuak Europako ingurugiro-arauak ez betetzeko asmoari eta beste gai batzuei buruzko informazioa eman dezan.

**16a:**

– Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: irailaren 18rako, ostegunez, aurreikusita zegoen Nekazaritza Batzordearen bilkura atzeratzea.

– Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Atarrabiako Nekazaritza Laborategiko hainbat dokumenturi buruzko informazioa.

– Etxarri-Aranazko Udalaren idazkia. Harekin batera, osoko bilkuraren erabakia, hauxe eskatuz: izapide egokiak burutzea Juan Nazabal Auzmendik Iruñeko espetxean bete dezan falta zaion kondena.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Ingurugiro Kontseilaria agertzea, Europako ingurugiro-arauak ez betetzeaz Gobernuko bozeramaleak esan dituenei buruzko informazioa emateko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Urbasa-Andiako parkearen administrazio-mugen ziurtagiria.

– Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Gizarte Gaietako Batzordearen lan-bilera, Langraitzeko espetxean diren Nafarroako emakume presoei egindako bisitaren berri emateko.

**17a:**

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako oihan ondareko mendiak egituratzeko proiektuei buruzko informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Ezkaba (San Cristobal) mendiaren egoerari eta aipatu mendian eta haren inguruan egin daitezkeen jarduketei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: "Eraikin historikoak bereoneratu eta babestea" izeneko 90065-7 aurrekontu-lerroaren burutze-egoerari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Bizkaiko Bermeoko Udalaren idazkia. Harekin batera, Juan Carlos Hernandoren heriotzari buruzko mozioa onesten duen erabakia.

– Yosheba Miren Sainz de la Higuera eta Gartzia jaunaren idazkia, bere egoera salatuz hainbat erakunderen aurrean.

– "Nafarroako Demokraten Elkargunea", "Izquierda Unida-Ezker Batua" eta "Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldeen idazkia. Hauxe eskatu dute: Parlamentari Taldeetako ordezkariak "Hegoa eta Komunikabideak" ikastarora joan ahal izatea.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Errektorearen agerraldia, Gober-

nu Batzordeak Hizkuntza Normalkuntza Plana ez onartzeko izan dituen arrazoien berri eman dezan.

– Mozioa, Foru Diputazioari modulazio-frekuentziako zortzi emisora berriren esleipenean euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion eskatzen duena. «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua

– Senideak-en idazkia, presoek Alcala-Mecoko espetxean jasan dituzten erasoak salatzeko.

**18a:**

– Ana Mª Velasco Egea andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: dokumentalista lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketan partea hartzea.

– César Calvo Gartxitorena jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: dokumentalista lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketan partea hartzea.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Itoizko urtegiko ur baliabideak neurri batean beste komunitate batzuetara eramateko Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekiko akordioei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: 230/1997 Foru Dekretua, irailaren 5ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Herri ekimenez sortutako zentroetan inbertsioak egiteko laguntzari buruzko hogeita zazpigarren xedapen gehigarriari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztua. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Adolfo Araiz Flamarique Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Itoizko urtegia egiteari buruzko hainbat txostenen gainekoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Institutos Técnicos y de Gestión direlakoen merkataritza-jarduerei buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

**19a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Barne Zuzendari Nagusiaren ebazpena, kreditu-lotura ezberdina duten kontusailen arteko.

– Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritako udal planei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (5. or.).

– Ozono geruzari kalte egiten dioten metil bromuroa eta beste gai batzuk gure Komunitatean gutxiago erabiltzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina

– Nafarroako Euskal Herrian Euskarazen idazkia. Hauxe eskatu dute: oposizioetan legea ezartzea euskarari buruzkoetan.

**22a:**

– Salvador Ochoa Pascual jaunaren idazkia, “Asociación de Desprotegidos Antiguo Orfanato de Navarra Sor Isabel”en arazoen berri emateko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Nafarroako Gobernuak “Mandacen” Fundazioari 1990etik egin dizkion ekarpenei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Félix Taberna Monzón Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Nafarroako Gobernuak azken bost urteotan egindako lur-desjabetzapen espedienteei buruzkoa.

– Mozioa, Foru Diputazioak irrati emisorak esleitzerakoan euskarari balorazio garrantzitsua eman diezaion. «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek aurkeztua.

**23a:**

– Aralarko larreak hobetzeko proiektuari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina.

– Aldariz jauna “Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoaren kudeatzaile izendatzeari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina

– Marta Ureta Castro andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: dokumentalista lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketan partea hartzea.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Ingurugiro Kontseilariaren agerraldia, Garesko NA-10045 ehizabarrutiaren egungo egoeraren berri eman dezan.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Itoizko urtegiari eta Nafarroako ubidearen gaineko kanpaina garatzeko irudi-enpresa bat kontratatzeko lehiaketaren administrazio-espedienteari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Ion Iñaki Erro Armendariz Foru Parlamen-

tari jaunak eskaturiko informazioa, “Andosillako zeharbidea” toki-azpiegituraren proiektu teknikoari buruzkoa.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztu dizkion emandakinak.

**24a:**

– “Izquierda Unida-Ezker Batua” Parlamentari Taldeak Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztu dizkion emandakinak.

– Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeak Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztu dizkion emandakinak.

– Interes artistikoa duten eraikinak bereoneratzeko obrei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina

– Zainketa eta segurtasun kontratuei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina

– “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeak Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztu dizkion emandakinak.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztu dizkion emandakinak.

– “Izquierda Unida-Ezker Batua” Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe eskatu dute: Osasun Kontseilariaren agerraldia, Nafarroako osasun-larrialdiei buruzko Planaren berri eman dezan.

– Ehizaren antolamendurako planen izapidatzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: NA-10045 Sarriako ehiza-barrutiaren Ehizaren antolamendurako planaren kopia.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: NA-10045 Sarriako ehiza-barrutian baimendutako basurde-ehizaldien ondoren Ingurugiro Departamentuan aurkeztu den txostenari buruzko informazioa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: NA-10045 Sarriako ehiza-barrutiko arduradunek 95, 96 eta 97 urteetan baimendutako ehiztarien zerrendari buruzko informazioa.

– Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan ordezkaritza duten erakundeei ordaintzeko aurrekontu-kontusailaren banaketari buruzko galdera, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak egina.

**25a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko “Laneratze babesturako programa berezia” aurrekontu-kontusailak arautzen duen deialdira aurkeztu diren eskarien zerrendari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Erriberako hainbat herri gasez hornitzeko “Gas Navarra”rekin izenpeturiko hitzarmenari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Itoizko urtegia-Nafarroako ubidearen inguruko irudi-zerbitzuen kontratazioari buruzko galdera, Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak egina Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Burson-Marsteller komunikazio-enpresari buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Lurzoru, etxebizitza eta birgaitzeari buruzko aurrekontu-kontusailen 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Ingurugiro Hezkuntzarako Jarduketak” deituriko 11000-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Ingurugiro Hezkuntzarako Programetarako eta Ingurugiroarekin zerikusia duten Beste Jardueretarako Dirulaguntzak” izeneko 11090-7 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Naturguneak babesteko Hitzarmena” deituriko 11550-0 kontusailaren 97-9-1eko betetzemailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: 1997rako lan-eskaintza publikoari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Mozioa, Espainiako Gobernua premiatzen duena parlamentu-aginduak bete eta pertsonen aurkako minak egin eta erabiltzea debeka ditzan, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» eta «Eusko Alkartasuna-Askotariko» Parlamentari Taldeek aurkeztua.

– Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako emakume presoen egoerari buruzko lanbilera egitea.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatu die Mahaiari eta Bozeramaleen Batzarrari: Parlamentuko Lehendakaria premia dezala Iribarren Iriarte Foru Parlamentari ohiaren egoerari buruzko informazioa eska dezan.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatu die Mahaiari eta Bozeramaleen Batzarrari: Parlamentuko Lehendakaria premia dezala Senideak-ek salatu egintzei buruzko informazioa eska dezan.

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: NA-10045 Sarriako ehiza-barrutiaren gaineko hainbat dokumenturi buruzko informazioa.

– Erreserba nazionaleko esne-kuota banatzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina.

**26a:**

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: aurrekontu-lerroen arteko kreditu-transferentzia egiteko baimena.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Lanbide-tailerretako ikasleei bekak emateari buruzko galdera, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Elortz ibaian, Imarkoain eta Noain inguruan, agertu den kutsadurari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Agoncillo-ko hondakin toxiko eta arriskutsuetarako hondakindegitik hurbil dagoen Nafarroako zonarako Nafarroako Gobernuak dituen neurriei eta hura Galilea-ra (Errioxa) lekualdatzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Vázquez de Mella” ikastetxe publikoan “A” eredua ezartzeari buruzko galdera, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: DBH, IEE, LH eta UBIko ikastetxeetan goizeko jarduna bakarrik egiteko baimenari buruzko galdera, Mª Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: D eredua dela-eta, ikastetxe publiko eta pribatuetan sortu diren tirabiren ondorioz Nafarroako Ikastolen Elkarteak aurkeztu dituen salaketei buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Europako Batasuneko estatu partaideetako ikastetxeetako ikasle taldeen artean truke eta topaketak egiteko laguntzen deialdiari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Irakaskuntza publikoan eta itunpekoan dauden sindikatu-liberatuen kopuruari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Diruz lagundutako eta itunpeko ikastetxeetan dagoen laguntzeko irakasleen guztizko kopuruari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: 1996-1997 ikasturtean sare publikoan diren irakasleei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Irakaskuntzaz besteko zereginetan ari

diren irakasleei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Aralarko Mikel deunaren obren egoerari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Uxueko elizako obren egoerari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Donapea institutuko goi zikloko euskara-moduluak kentzeari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina

– Kontuen Ganbararen idazkia, kontu-ikuskaritzako teknikari izateko lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketaren azterketaren eguna jakinarazteko

**29a:**

– Aralarko Mendikateko larreak hobetzeari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina.

– N-121-Aren trazadura berriari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Landa-bideei buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Proiektaturiko urtegiak burutzearen gainean Ingurugiro Ministroak adierazitakoei buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren zenbait Foru Aginduri buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Kutsaturiko lurzoruen inbentarioari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Mahasti-hektareak izendapen ezberdinen artean banatzeko erabili diren irizpideei buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Gaur egun trenbide-zerbitzuetarako erabiltzen den lurzorua jaregiteari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Esako urtegia handitzea onesteko prozedurari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Antena parabolikoak jartzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Kanpoko enpresek Nafarroan egiten dituzten inbertsioei buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– Tutera-Madril autobidea eraikuntzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina.

– “Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Industria-Isuriak Minimizatu eta Tratatzeko eta Ingurugiro-Auditorietarako Dirulaguntzak” deituriko 11250-0 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Kudeaketako teknikari izateko 10 lanposturen deialdiari buruzko galdera, Mª Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: “Endekaturiko Eremuen Leheneratzea eta Ingurugiro Eraginen Zuzenketa” deituriko 90037-1 kontusailaren 97-9-1eko betetze-mailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera: Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidea direla eta "Burson Marsteller" enpresaren zerbitzuak kontratatzeko prozesuari buruzkoa.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, Kontuen Ganbarako Lehendakariaren erabakia, Kontuen Ganbararen 1998rako Aurrekontuaren proiektua onesten duena.

**30a:**

– Mercedes Corretgé Arrastia andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: dokumentalista lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketan partea hartzea.

– Mariano González jaunaren eta beste batzuen idazkia. Harekin batera, Audientziako eraikina

Nafarroako Parlamentuaren egoitza berri izateko bereoneratze eta erreforma burutzeko proiektua.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko emendakinak.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Lehendakaritza Idazkari Nagusiaren ebazpena, kontusailen arteko aurrekontu-aldaketak baimentzeko.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioari buruzkoa. Mozio horrekin Foru Diputazioari 1997ko ekaitzek sortutako kalteak arintzeko aparteko kreditu bat arautuko duen Foru Lege proiektu bat igor dezan eskatzen zaio.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldearen Foru Lege proposamena, Artekaria-Herritarren Eskubideen Defendatzaileari buruzkoa.

– Mª del Carmen Rius Saleta andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: dokumentalista lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketan partea hartzea.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen idazkia, hauxe jakinarazteko: Jaime Iribarren Iriarte jauna sarritan agertuko dela aipatu Taldearen bulegora.

---


HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

| | | |
|---|---|---|
| Urte bat | 5.800 | pta. |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa | 130 | » . |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa | 165 | » . |

IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

**NAFARROAKO PARLAMENTUA**

«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»

Arrieta, 12, 3

31002 IRUÑEA

Inprimatzailea: Gráficas ONA, S. A.—Artika (Nafarroa).

Lege Gordailua: NA—363-1995

Paper Ekologiko birziklatua